

JUSTIZIA MINISTERIOAREN EGOITZA JUDIZIAL ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ APUD ACTA AHALORDETZEAK EGITEKO GIDA

Lankide agurgarriak:

Jarraian, Justizia Ministerioaren Egoitza Judizial Elektronikoaren bitartez Administrazio-arekiko Auzietarako Epaitegien aurrean *apud acta* ahalordetzeak egiteko modua aurkezten dizuegu.

Justizia Ministerioaren Egoitza Judizial Elektronikoan ondorengo esteka honen bidez sar daiteke:

https://sedejudicial.justicia.es/sje/publico/sjepublico/tramites_y_servicios/detalle_servicio/!ut/p/a1/04_Sj9CPyKssy0xPLMnMz0vMAfGjzOLdLVyMPPy9Dbz8Lc0tDRy9XXzNgwJ9jQzcZYEKIoEKDHAARwMO_aHBhgaeYa7mAWGm_oYGZoZQ_XgUEGU_XIG7k6U5UL-3cZCle5CcgYEZIf3h-IGElKApwGIFWAGeM-CjIDQ2NMMj0BAAaroY2/dl5/d5/L2dJQSEvUUt3QS80SmlFL1o2X0c4RDJIT0swSk85NzkwQUtETTdSUU0yMDQ0/?itemId=266711&categoria=Servicios&tags=

Zerbitzu horretan sartzeko, egin beharreko lehenengo gauza Pasahitz edo Ziurtagiri Elektronikoaren bitartez identifikatzea da, JustiziaSip atarian sartzeko egin ohi den bezalaxe. Sartu ondoren, hurrenez hurren agertuko diren pantailetan adierazten diren urratsak bete besterik ez dugu, hasieran “Agertutako / Ordezkaritza gisa” aukera hautatuz betiere.

Honekin batera doan gida luze samarra izan arren, lehenengo 10 orrialdeetan azaltzen da urratsez urrats nola bete behar den inprimakia, gero apud acta ahalordetzea erdietsi ahal izateko. Lehenik zirriborro bat lortuko dugu, eta bertan, datu guztiak zuzenak direla berretsi beharko dugu, gero ziurtagiria bera deskargatu ahal izateko.

Bete beharreko urrats horietako batean, aplikazioak esango digu PDF formatuko fitxategi bat gehitu beharko dugula nahitaez (Gidaren 8. orrialdea). Ahalordetze hori eman ahal izateko gure ahalorde-emailearen ordezkari gisa akreditatzen gaituen agiri bat eskatzen zaigula ulertzen da.

Une horretan, guardiako egunean karpeta berran topatu dugun “Administrazio-espeditze batean ordezkaria izendatzeko agerpena. Agindu-ematea” inprimakia gehitu dezakegu, atzeritarrak izenpetua jakina, ahalordetze hori emateko haren ordezkari gisa agertuko garela akreditatzeko.

Ahalordetze hori, hasieran, gure alde emango da, baina Prokuradore baten aldekoa ere izan daiteke, “ahalordedunaren datuetan” profesional mota, elkargokide zenbakia eta kidetasunaren Elkargoa zein diren adieraziz automatikoki aplikazioak gainerako datuak beteko dituelako.

Espero dugu bide hau ordezkartzaren arazoarentzat irtenbide bat izatea, eta halaber, Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegien aurrean jarritako helegiteek beren bidea egin dezatela lortu ahal izatea.

Besarkada bat.

ICAGI ATZERRITARTASUN BATZORDEA